

Ariketa:

Testu pertsuasibo baten analisia: iturriaren eta mezuaren aldagaiak.

Ariketa honetan lantzen diren gaitasunak:

- Pentsamendu-zerrenda teknika aplikatzea.
- Aktitude aldaketa lortzeko iturriaren aldagai eraginkorrak ezagutu eta identifikatzea.
- Aktitude aldaketa lortzeko mezuaren aldagai eraginkorrak ezagutu eta identifikatzea.

Aldez aurreko betebeharrak:

1. Hasteko, jarraitu baino lehen, erantzun ondorengo galdera:

Zein neurritan zaude ados ondoko ideiarekin?

“Energia nuklearra ezinbestekoa da gure energia-beharrizanak asetzeko”

Gutziz kontra	-3	-2	-1	0	1	2	3	Gutziz ados
---------------	----	----	----	---	---	---	---	-------------

2. Hurrengo praktika baino lehen, ikasleek ondorengo testua irakurri behar dute:

Rosa Montero. El País Semanal. Nº 1545. 2006ko maiatzaren 7, igandea.

“James Lovelock. El retorno del creador de Gaia”.

http://www.elpais.com/articulo/portada/retorno/creador/Gaia/elpepupotec/20060507elpepspor_1/Tes

3. Testua irakurri bitartean, idatz itzazu gogora datozkizun ideia guztiak.

4. Irakurri ondoren, adieraz ezazu berriro zein neurritan zauden ados aurreko ideiarekin:

“Energia nuklearra ezinbestekoa da gure energia-beharrizanak asetzeko”

Gutziz kontra	-3	-2	-1	0	1	2	3	Gutziz ados
---------------	----	----	----	---	---	---	---	-------------

5. Sailkatu zure pentsamenduak apunteetako 84-85 orrialdeetan azaltzen den pentsamenduen zerrenda teknikak proposatzen dituen kategorien arabera.

Ikasgelan egin beharreko lana:

6. Zein da testuan defendatzen den ideia nagusia?
7. Zein argudio erabiltzen dira ideia defendatzeko eta zein ordenetan agertzen dira?
8. Teoriaren arabera, beldurra baliatzen duten mezuak ondoren aipatuko diren edukiak landu behar dituzte jarrerak edo portaerak aldatzeko eraginkorrak izan daitezten. Gai bakoitzarentzat, adierazi zure ustez mezu honek zein neurritan betetzen duen:

- Arazoaren larritasuna komunikatu
- Ondorio negatiboak norberari gertatzeko probabilitate altua adierazi
- Gomendatutako babes portaer(ar)en eraginkortasuna sinistarazi
- Gomendatutakoa egingarria dela pentsarazi

Ezer ere ez	1	2	3	4	5	Guztiz
Ezer ere ez	1	2	3	4	5	Guztiz
Ezer ere ez	1	2	3	4	5	Guztiz
Ezer ere ez	1	2	3	4	5	Guztiz

9. Zer deritzozu James Lovelock-i?

- Sinisgarria iruditzen al zaizu?
- Gaian aditua iruditzen al zaizu?
- Zintzoa iruditzen al zaizu? Benetan pentsatzen duena esaten al du?
- Gogoko al duzu?

Ezer ere ez	1	2	3	4	5	Guztiz
Ezer ere ez	1	2	3	4	5	Guztiz
Ez, seguru	1	2	3	4	5	Bai, seguru
Ezer ere ez	1	2	3	4	5	Guztiz

10. Nola eragiten da testuan aditutasun pertzepzioa?
11. Nola sortarazten da zintzotasun edo fidagarritasun pertzepzioa?
12. Zelan bultzatzen da pertsonaia atsegin suertatzea?
13. Ebidentziak mezuaren pertsuasio indarra areagotzen du. Ebidentzia honela definitzen da: “komunikatzailea ez beste iturriren batek sorturiko adierazpen faktualak, komunikatzaileak sortu ez dituen objektuak, eta komunikatzailea ez beste norbaiten iritziak, komunikatzaileak dioenaren indargarri ekarriak.” Nolako ebidentziak aurkezten dira testuan argudioak indartzeko?
14. Mezuaren egiturari dagokionez, teoriarik alde bakarreko mezuak eta bi aldedun mezuak bereizten dira. Alde bakarreko mezuetan, aldeztu den objektuaren edo ideiarenekin, eta/edo ideia defendatzen duen pertsonaren alde onak baino ez dira aipatzen, okerrik edo alternatibarik aipatu eta ezereztu gabe. Aitzitik, aldeztu nahi den objektuaren edo hura defendatzen duen pertsonaren alde onekin batera haren alde eskasak bat edo alternatibaren bat ere azaltzen duen mezuari, bi aldedun mezua esaten zaio. Zein motako mezua da hau? Adierazi zein pasartetan oinarritzen zaren erantzuna emateko.

15. Bi aldedun mezuetan, ohikoa izaten da ahulgune aitortuei indarra kentzeko teknikak erabiltzea, hala nola, ahulgunea barregarri edo erridikulu agertzea, alde positiboari neurritz gaineko indarra ematea, aurkari ezgauzatzat jotzea, aurkako argudioak ahuldurik agertzea, akatsaren edo ahulgunearen abantailak azaltzea, ... Ba al dago testu honetan horrelakorik?
16. Komunikazio pertsuasiboak arrazionalak edo emozionalak izan daitezke. Mezu arrazionalak datu eta ebidentzietan oinarritzen dira. Mezu emozionalek, berriz, sentimenduak eta berehalako atsegin – desatsegin, edo onarpen – gaitzespen erantzun automatikoak sortarazteko diseinatuta egoten dira; horretarako, irudiak, istorioak, metaforak, ... erabiltzen dituzte. Zure ustez, zer da nagusi testu honetan? Arrazoiak eta adibideak eman.
17. Zenbait mezu pertsuasibotan umorea erabiltzen da. Izan ere, umoreak hainbat abantail ditu: arreta erakartzen du; komunikatzailearen irudia hobetzen du; arreta argudioetatik desbideratzen du eta, horrela, sor litezkeen kontra-argudioak oztopatzen ditu; eta audientzia aldarre onean jarritz, mezuan defendatzen denaren aldeko argudioak bururatzea errazten du. Aurkitu al duzu umore zantzurik testu honetan?
18. Amaitzeko, egin ezazu iruzkin pertsonala, aurreko galderei eman dizkiezun erantzunetan oinarrituz. Aldatu egin al da zure aktitudea testua irakurri ondoren? Zergatik?

Ebaluazio irizpideak.

Pentsamendu zerrendak testutik harago doazen ideiak barneratzen ditu (hartzaileak sortutako pentsamenduak, ez testuaren ideien errepikapen hutsa).	Puntu 1
Ondo identifikatzen da testuaren ideia nagusia eta bai ideia inguratzen duten argudioak ere.	Puntu 1
Ondo identifikatzen dira iturriaren aditutasunaren pertzepzioa eragiten duten elementuak.	Puntu 1
Ondo identifikatzen dira iturriaren fidagarritasunaren pertzepzioa eragiten duten elementuak.	Puntu 1
Ondo identifikatzen dira iturriaren atsegintasun pertzepzioa eragiten duten elementuak.	Puntu 1
Ondo argudiatzen da testua alde bakarrekoa ala bi aldekoa den.	Puntu 1
Aurkaria desakreditatzeko erabiltzen diren teknikak identifikatu ditu	Puntu 1
Ondo argudiatzen da testua arrazionala ala emozionala den	Puntu 1
Iruzkina pertsonala teoriaraino oinarritzen da.	2 puntu